

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL



**INFORMATIKA ETA
KOMUNIKAZIOAK**

**PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOAK GARATZEKO GOI MAILAKO
TEKNIKARIA**

3. modulua: Programazioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INFORMATIKA ETA
KOMUNIKAZIOAK

**PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOAK GARATZEKO GOI MAILAKO
TEKNIKARIA**

3. modulua: Programazioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: lehenengoa, 2011ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Egilea: Elena Rodríguez Fidalgo

Edizioa eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-385/2011

Orduak: 264
Unitateen kop.: 13

Esku artean duzun argitalpen hau aktibo dauden lankideek prestatu dute.

Edozein gai programatzea oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua, eta, horrenbestez, subjektiboa. Hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta, egoki baderitzozu, kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratzeko gidaliburu gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Mugak izan baditzake ere, heziketa-ziklo berrien ezaugarrietan oinarrituta sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria kontuan hartuta (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiegu egileei, egindako ahaleginagatik.

AURKIBIDEA

	UNITATE DIDAKTIKOEN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	05. or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	06. or.
1	1. unitate didaktikoa: Programa baten garapenaren faseen analisia. Lengoaiaren elementuak.	09. or.
2	2. unitate didaktikoa: Objektuei orientatutako programazioaren funtsak aztertzea.	17. or.
3	3. unitate didaktikoa: Kontrol-egituren aplikazioa.	23. or.
4	4. unitate didaktikoa: Objektuei orientatutako programazioan oinarritutako aplikazio baten egitura garatzea: objektuak eta klaseak. Aurrez definitutako klaseak erabiltzea.	30. or.
5	5. unitate didaktikoa: Informazioa datu-egituretan biltegitratzea.	38. or.
6	6. unitate didaktikoa: Abstrakzio mekanismoak aplikatzea: klaseak, paketeak, azpiklaseak eta interfazeak.	48. or.
7	7. unitate didaktikoa: Klase generikoak eta salbuespenen kontrola.	57. or.
8	8. unitate didaktikoa: Sarrera-irteera fluxuak eta fitxategiak aztertzea.	63. or.
9	9. unitate didaktikoa: Erabiltzailearen interfaze grafikoak garatzea.	70. or.
10	10. unitate didaktikoa: Datu-base erlazionalen sarrera kontrolatzea eta mantentzea.	74. or.
11	11. unitate didaktikoa: Objektuei orientatutako datu-baseak aztertzea eta implementatzea.	79. or.

Unitate didaktikoen sekuentziak eta denboralizioa


EDUKI MULTZOAK									UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
B1	B2	B3	B4	B5	B6	B7	B8	B9		
									0. UD: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X	X			X					1. UD: Programa baten garapenaren faseen analisia. Lengoaiaren elementuak.	23 h
	X		X	X					2. UD: Objektuei orientatutako programazioaren funtsak aztertzea.	21 h
		X							3. UD: Kontrol-egituren aplikazioa.	26 h
	X		X	X					4. UD: Objektuei orientatutako programazioan oinarritutako aplikazio baten egitura garatzea: objektuak eta klaseak. Aurrez definitutako klaseak erabiltzea.	30 h
					X				5. UD: Informazioa datu-egituretan biltegitzea.	35 h
			X	X		X			6. UD: Abstrakzio mekanismoak aplikatzea: klaseak, paketeak, azpiklaseak eta interfazeak.	32 h
		X			X				7. UD: Klase generikoak eta salbuespenen kontrola.	25 h
				X					8. UD: Sarrera-irteera fluxuak eta fitxategiak aztertzea.	24 h
				X					9. UD: Erabiltzailearen interfaze grafikoak garatzea.	18 h
								X	10. UD: Datu-base erlazionalen sarrera kontrolatzea eta mantentzea.	17 h
							X		11. UD: Objektuei orientatutako datu-baseak aztertzea eta inplementatzea.	12 h
GUZTIRA										264 ordu

1. multzoa: Programa informatiko baten elementuak identifikatzea.
2. multzoa: Objektuak erabiltzea.
3. multzoa: Kontrol-egiturak erabiltzea.
4. multzoa: Klaseak garatzea.
5. multzoa: Informazioa irakurtzea eta idaztea.
6. multzoa: Biltegitze-egiturak aplikatzea.
7. multzoa: Klaseak modu aurreratuan erabiltzea.
8. multzoa: Objektuen iraunkortasuna mantentzea.
9. multzoa: Datu-base erlazionalak kudeatzea.

0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: ordu 1								
Ikaskuntza-helburuak:										
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluren unitate didaktikoen arteko eta moduluren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 										
EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 									
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 									
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 									



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da
			Irak.	Ik.			
J1. Ikasleak eta irakaslea aurkeztu.	1	10 min	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak, aurkezpenean, interesgarriak izan daitezkeen alderdiak azalduko ditu; bere esku egongo da informazio bat edo bestea ematea.	Hasierako ezagutza lortzeko eta gizarte-oztopoak gainditzeko, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Taldea aurreko ikasturtean sortua bada, jarduera hau ez da beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2. Programazioa osatzen duten elementuak aurkeztu.	2-4	10 min	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak, eta abar azalduko ditu, eskema bat edota informatika-baliabideak erabiliz.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jasotzeko.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideak eta arauak aurkeztu.	2-3	10 min	X	X	Irakasleak prozesua kudeatzeko erabiliko dituen askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu, gardenkiez edo beste elementu batzuek lagunduta. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertzeko, eta haien jarduna arauzko esparru horretara moldatu ahal izateko.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenak identifikatu.	5	30 min	X	X	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleek abiapuntuan duten jakintza-maila ezagutzeko. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.



OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egin.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta A-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: PROGRAMA BATEN GARAPENAREN FASEEN ANALISIA. PROGRAMAZIO LENGUAIK.

Iraupena: 23 ordu

IE1: Markatzeko lengoaien ezaugarriak ezagutzen ditu, eta, eginkizun horretan, kode zatiak aztertu eta interpretatzen ditu.

IE2: Programa sinpleak idatzi eta probatzen ditu, eta, eginkizun horretan, objektuei orientatutako programazioaren oinarriak ezagutu eta aplikatzen ditu.

IE5: Informazioaren sarrerako eta irteerako eragiketak egiten ditu, eta, eginkizun horretan, lengoaiaren prozedura espezifikak eta klase-liburutegiak erabiltzen ditu.

Ikaskuntza-helburuak:

1. Programa informatiko baten egitura osatzen duten blokeak identifikatzeko.
2. Aplikazioak garatzeko proiektuak sortzea.
3. Objektuei orientatutako programazioaren oinarriak identifikatzea.
4. Garapen-ingurune integratuak erabiltzea.
5. Aldagaien motak eta horietako bakoitzaren berariazko erabilera identifikatzea.
6. Aldagaiak sortzeko eta erabiltzeko programa baten kodea aldatzea.
7. Konstanteak eta literalak sortzea eta erabiltzea.
8. Lengoaiaren eragileak sailkatzea, ezagutzea eta adierazpenetan erabiltzea.
9. Mota-bihurketa esplizituen eta inplizituen funtzionamendua egiaztatzea.
10. Informazioaren sarrera eta irteerako eragiketa sinpleak egiteko kotsola erabiltzea.
11. Kodean iruzkinak sartzea.

EDUKIAK		Multzoak									
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Programa informatiko baten egitura osatzen duten blokeak identifikatzea. • Objektuei orientatutako programazioaren oinarriak identifikatzea. • Hainbat garapen-ingurune integratu aztertzea. • Programa bat osatzen duten elementuak identifikatzea eta erabiltzea: aldagaiak, konstanteak, literalak. • Adierazpenak ebaluatzea eta erabiltzea, eragileen lehentasun-arauei jarraituz. • Mota-bihurketa inplizituak eta esplizituak egiaztatzea. • Informazioaren sarrera eta irteerako eragiketa sinpleak egiteko kotsola erabiltzea. • Kodean iruzkinak txertatzea. 	X	X								



KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Programa baten egitura eta funtsezko blokeak. • Objektuei orientatutako lengoaien ezaugarriak. • Erabilera-ezaugarriak eta aldagaien deklarazioa. • Datu motak: oinarrikoak, erreferentziatuak, enumeratuak. • Literalaren kontzeptua. • Erabilera-ezaugarriak eta konstanteen deklarazioa. • Eragileak (aritmetikoak, logikoak, erlaziokoak, unitarioak, bit-mailakoak, esleipenekoak, baldintzakoak). • Ebaluatze ordena eta lehentasuna. • Adierazpenak ebaluatze arauak. • Honako bihurteta motak: implizitua eta esplizitua. • Kodearen barruko iruzkinak. 				X	X						
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazioen programazioan berritzeko prestasun eta ekimen pertsonala izatea. • Garapen-ingurune integratu baten erabileraren abantailak baloratzea. • Mota horretako lengoaietikiko eta horien aplikazioarekiko interesa azaltzea. • Kodean iruzkinak sartzearen garrantzia baloratzea. 				X	X						
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK				
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da					
			Irak.	Ik.								
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.		15 min	X	X	Irakasleak unitate didaktikoa eta barnean hartzen dituen atalak ikasteko helburuak aurkeztuko ditu.	Gaia aurkezteko eta ikasleak gaiaren aurrean jarrera egokia hartzera bultzatzeko.	Proiektagailua. Gaiaren aurkibidea.					
J1. Programazio-lengoaiak aurkeztu.	2	1 h	X		Irakasleak programazio-lengoaiari buruzko ikuspegi orokorra emango du: zer diren, historia, bilakaera, lengoaiari mihiztatzailak, maila handikoak (egituratuak, objektuei orientatuak, gertaerei orientatuak). Horietako bakoitzaren adibide bat emango du.	Moduluaren edukirik adierazgarrienak ezagutzeko, eta gainerako unitate didaktikoak esparru beraren testuinguruan sartu ahal izateko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.					
J2. Objektuei orientatutako programazio-lengoaiak aurkeztu eta aztertu.	2	1,5 h	X	X	Irakasleak objektuei orientatutako programazio-lengoaien ezaugarriak	Objektuei orientatutako programazio-lengoaien ezaugarriak eta horietako	Proiektagailua. Apunteak.					



					<p>azalduko dizkie ikasleei: C++, Java, C#, Eiffel.</p> <p>Emandako informazioan oinarrituta eta Interneten kontsultatuta, ikasleei eskatuko zaie objektuei orientatutako programazio-lengoaia bakoitzaren alde onei eta txarrei buruzko taula egitea.</p> <p>Amaitzean, eta egindako taula abiapuntu izanik, ikasleek lortutako emaitzak azalduko dituzte jendaurrean.</p>	<p>bakoitzaren alde onak eta txarrak ezagutzeko, betiere garatu beharreko aplikaziorako egokiena aukeratzearen.</p>	<p>Arbel digitala. Internet.</p>
J3. Programa baten garapenaren faseak azaldu.	1,2	1 h	X		<p>Irakasleak programa baten garapenaren faseak azalduko dizkie ikasleei. Abiapuntua problemaren analisisa izango da, gero programazio-lengoaia batean kodetu beharko da, konpiladore edo interpretatzaile baten bidez makinako lengoaiara itzuli beharko da, exekutatu egin beharko da eta ager daitezkeen erroreak araztu beharko dira.</p>	<p>Programa baten garapenean jarraitu beharreko etapak identifikatzeko.</p>	<p>Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.</p>
J4. Programa informatiko baten egitura osatzen duten blokeei buruzko azalpenak eman.	1,2	1 h	X		<p>Irakasleak programa baten egitura nolakoa den aurkeztuko du. Adibide simple bat abiapuntu izanik, horren egitura osatzen duten blokeak aztertuko ditu, eta eredu horretan oinarrituta, ikasleek, gero, haien programak egin beharko dituzte.</p>	<p>Programa informatiko baten egitura osatzen duten blokeak identifikatzeko.</p>	<p>Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.</p>



J5. Garapen-ingurune bat instalatzeko moduari buruzko erakustaldia egin.	3	1,5 h	X	X	<p>Irakasleak garapen-ingurunea instalatu eta konfiguratuko du bere ekipamenduan, eta ingurune hori ikastaroko edukiak garatzeko tresna gisa izango da baliagarria.</p> <p>Gero, ikasle bakoitzak instalazio horiek egin beharko ditu bere ekipamenduan.</p> <p>Java Development Kit instalatzea proposatzen da, dohainik eskura baitaiteke lotura honetan: http://www.oracle.com.</p>	Garapen-ingurune bat instalatzeko eta konfiguratzeko gai izateko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala. Internet.
J6-E1. Agindu-lerroko interfazea erabilia, programa bat sortzeko ariketa praktikoa gidatua egin.	1,2,3,9	1,5 h	X	X	<p>Aurretik egindako instalazioan oinarrituta, irakasleak "hola mundo" gisako programa simple baten garapenean gidatuko ditu ikasleak, ediziotik konpilaziora eta exekuziora, garapeneko kit-ak duen agindu-lerroaren interfazea erabilia.</p>	Programa sinpleak garatzeko ingurunea erabiltzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J7. Garapen-ingurune integratu bat instalatzeko moduari buruzko erakustaldia egin.	3	1,5 h	X	X	<p>Irakasleak kurtsoaren edukiak garatu ahal izateko beharrezko aplikazioak instalatu eta konfiguratuko ditu bere ekipamenduan.</p> <p>Gero, ikasle bakoitzak instalazio horiek egin beharko ditu bere ekipamenduan. Tresnerian administrazio-baimenen arloko arazoak izanez gero, aplikazio garraigarriak erabiliko dira; bestela, nork bere partizioa beharko du edo makina birtuala beharko da.</p>	Garapen-ingurune integratu bat instalatzeko eta konfiguratzeko gai izateko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala. Internet.




					NetBeans garapen-ingurune integratua instalatzea proposatzen da, dohainik eskura baitaiteke lotura honetan: http://www.oracle.com .		
J8-E2. Garapen-ingurune integratua erabilita, programa bat sortzeko ariketa praktikoa gidatua egin.	1,2,3,9	1,5 h	X	X	Irakasleak hainbat eragiketa aritmetiko egingo dituen programa simple baten garapena azalduko du –ediziotik konpilaziora eta exekuziora–, eta emaitza pantailan erakutsiko du. Horretarako, aurreko jardueran instalatutako garapen-ingurune integratua erabiliko du. Ondoren, adierazitako bi tresnak erabiliz (JDK eta NetBeans) aplikazioen garapenaren alde onak eta txarrak eztabaidatuko dira.	Garapen-ingurune integratua erabiliz, informazioa sartzeko eta irteerako kotsola erabiltzen duten programa sinpleak sortzeko gai izateko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J9-E3. Garapen-ingurune integratua erabilita, programa bat editatzeko, konpilatzeko eta exekutatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,2,3,9	2 h		X	J7 jardueran emandako IDEa erabiliz, ikasleek J8 jardueran egindako programaren antzeko programa egin beharko dute, aldagaitza txikiren bat sartuta. Ikasleek programa osoa garatzeko gauza izan beharko dute, ediziotik konpilaziora, erroreen soluziora eta exekuziora.	IDEa erabiliz, programa simple bat autonomiaz garatzeko.	Apunteak. Praktikaren enuntziatua biltzen duen dokumentua.
J10. Lengoaiaren sintaxia aurkeztu eta oinarritzko datuen motak azaldu.	3,4	1 h	X		Irakasleak lengoaiaren oinarritzko sintaxia azalduko du. Era berean, datu sinpleen motak azalduko ditu: osoak, errealak, izaera... Horretarako, hainbat motatako datuak erabiltzen dituzten	Lengoaiaren sintaxia ezagutzeko, eta ematen dituen datu motak barneratzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.



					programen adibideak erabiliko ditu.		
J11. Identifikatzaile kontzeptua eta haren sintaxia, hitz gakoak edo erreserbatuak azaldu.	4	15 min	X		Irakasleak identifikatzaile kontzeptua sartuko du, baita hori sortzeko erabilitako arauak ere. Ondoren, lengoaiaren hitz erreserbatuak zein diren erakutsiko du.	Identifikatzaile eta hitz erreserbatu kontzeptuak ezagutzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J12. Konstante eta literal kontzeptuak azaldu.	4,6	45 min	X	X	Adibideen erabileraren bitartez, irakasleak konstante eta literal kontzeptuak sartuko ditu; era berean, kontzeptu horiek erabiltzearen beharra eta abantailak azalduko ditu. Gero, ikasleek, taldeka, zer konstante eta literal diren beharrezkoak, zer balio duten eta zer datu motak dituzten eztabaidatzeko ariketak proposatuko ditu.	Konstante eta literal kontzeptuak ezagutzeko, eta programa baten barruan erabiltzeko gauza izateko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J13. Aldagai kontzeptua eta horren erabilera azaldu.	4,5	45 min	X	X	Irakasleak aldagai kontzeptua azalduko du adibideen erabileraren bitartez; gero, ikasleek, taldeka, zer aldagai diren beharrezkoak eta zer datu motak dituzten eztabaidatuko dute.	Aldagai kontzeptua ezagutzeko, eta programa baten barruan erabiltzeko gauza izateko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J14. Kodean iruzkinak txertatzeari buruzko azalpenak eman.	10	30 min	X		Irakasleak kodean iruzkinak txertatzeko beharra azalduko du, eta, gero, beharrezko sintaxia adieraziko du.	Kodean iruzkinak txertatzearen garrantziaz jabetzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J15. Lengoaiaren eragileak sailkatzeari eta adierazpenetan erabiltzeari buruzko azalpenak eman.	4,6,7	1,5 h	X	X	Irakasleak adierazpenen parte diren eragileak azalduko ditu: aritmetikoak, logikoak, erlaziokoak, unitarioak, bit-	Adierazpenetan esku hartzen duten elementuak ezagutzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.


					<p>mailakoak, esleipeneoak eta baldintzazkoak.</p> <p>Hainbat erabilera-adibide proposatuko ditu eragile bakoitzarekin.</p> <p>Gero, adierazpenaren barruko ebaluazio-ordena eta lehentasun-arauak azalduko ditu.</p>		
J16-E4. Adierazpenak ebaluatzeo ariketak egin, eragileen ebaluazio-agindua eta lehentasun-arauak aplikatuta.	4,6,7	30 min		X	Eragileek erabiltzen dituzten adierazpenak eta aurreko jardueran sartutako lehentasun-arauak ebaluatzeo, ariketak egingo dituzte ikasleek.	Adierazpenak sortzeo eta ebaluatzeo gauza izateko.	Apunteak. Ariketen enuntziatua jasotzen duen dokumentua.
J17. Mota-bihurketa esplizitu eta inplizituei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	8	30 min	X		Irakasleak mota-bihurketaren kontzeptua azalduko du, eta bihurketa horiek programa baten barruan erabiltzeo beharra aurkeztuko du, adibideen erabileraren bitartez.	Mota-bihurketen aplikazioa ezagutzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J18-E5. Unitate didaktikoan garatutako elementuetan esku hartzen duten programa sinpleak ebazten dituzten soluzioak garatzeko ariketa praktiko autonomoa egin.	Guztiak	2 h		X	<p>IDEa erabilia, ikasleek unitate didaktikoan landutako kontzeptuak erabiltzen dituen programa garatuko dute.</p> <p>Ikasleek hainbat motatako datuak eta hainbat eragile agertuko diren adierazpenak erabiltzen dituzten programak garatzeko gauza izan beharko dute, eta datu horien edukia eta adierazpen horien ebaluazioa azaldu beharko dute pantailan.</p> <p>Era berean, unitate didaktikoan</p>	Unitate didaktikoan sartutako kontzeptuak erabilia, IDE baten bitartez programa sinpleak garatzeko gauza izateko.	Apunteak. Praktikaren enuntziatua biltzen duen dokumentua.



					sartutako elementuen sintaxiari dagokionez, agertzen diren konpilazio-erroreak zuzentzeko gauza izan beharko dute.		
J19. Erreparasatu eta zalantzak argitu.	Guztiak	30 min	X	X	Taldean, unitate didaktikoen edukia erreparasatuko da. Irakasleak zalantzak argituko ditu, eta arbelean eskema bat osatuko du.	Erreparasatzeko eta zalantzak argitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala.
E6. Ebaluazio-proba espezifikoa egin.	Guztiak	2 h		X	Ikasle bakoitzak proba bat egingo du, idatziz edota ordenagailuan; bertan, unitate didaktikoan azaldutako edukiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko die. Proba bakoitzak ordubeteko (1 h) iraupena izango du –errekuperazio-azterketarako beharko litzatekeen denbora barne–.	Ikasleek unitate didaktikoan landutako edukiak zein mailatan bereganatu dituzten jakiteko.	IDE batez hornitutako ordenagailua. Azterketa idatziaren gidioa.

OHARRAK

- Garapen-ingurune baten instalazioari buruzko J5 jarduera gauzatzean, modulua garatzeko erabiliko den objektuei orientatutako programazio-lengoaia hautatu beharko da. JAVA izatea proposatzen da, azken urteetan hedapen handiena izan duen objektuei orientatutako programazio-lengoaierako bat baita. C++ lengoiaian oinarritutako lengoaia da baina sinplifikatua, erabilerrazagoa, maila handiagokoa eta errore gutxiagokoa. Aurrez definitutako klaseen oso liburutegi estandar zabala du. Java aplikazioak edozein plataformatan exekuta daitezke, berriro konpilatzeko beharrik gabe. Espektro zabala du: programazio tradizionala, banatua, GUI, Web, gailu mugikorak, eta abar. Memoriaren kudeaketa aurreratua du; zaborbiltzaile baten erabileraren bidez, errorearen kudeaketa aurreratua errazten du, konpilazio-denboran zein exekuzio-denboran. Gainera, exekuzio-hari ugariko euskarri sinplea eskaintzen du. Lengoaia irekia denez gero, garapeneko kit-ak eta doako dokumentazioa eskaintzen ditu sarean.
- J6 jarduera egiteko, jarduera JDKren agindu-lerroko interfazea erabiliz garatzea proposatzen da.
- J7 jarduera eta hurrengoak garatzean, Netbeans gisako garapen-ingurune integratua proposatzen da.



2. unitate didaktikoa: OBJEKTUEI ORIENTATUTAKO PROGRAMAZIOAREN FUNTSAK AZTERTZEA Iraupena: 21 ordu

IE2: Programa sinpleak idatzi eta probatzen ditu, eta, eginkizun horretan, objektuei orientatutako programazioaren oinarriak ezagutu eta aplikatzen ditu.
IE4: Hainbat klasetan antolatutako programak garatzen ditu, eta, eginkizun horretan, objektuei orientatutako programazioaren printzipioak aztertu eta aplikatzen ditu.
IE5: Informazioaren sarrerako eta irteerako eragiketak egiten ditu, eta, eginkizun horretan, lengoaiaren prozedura espezifikoak eta klase-liburutegiak erabiltzen ditu.

Ikaskuntza-helburuak:

1. Programa sinpleak idaztea.
2. Objektuen metodoak eta propietateak erabiltzea.
3. Eraikitzaileak erabiltzea.
4. Garapen-ingurune integratua erabiltzea programa sinpleak sortzean eta konpilatzean.
5. Klase baten sintaxia, egitura eta osagai tipikoak ezagutzea.
6. Informazioa bistaratzean formatuak aplikatzea.


EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Objektu-klase bat diseinatzea eta inplementatzea. • Objektuen propietateak eta metodoak erabiltzea. • Eraikitzaileak erabiltzea. • Programa sinpleak sortzean eta konpilatzean, garapen-ingurune integratua erabiltzea. • Klase baten sintaxia, egitura eta osagaiak ezagutzea. • Formatu bidezko irteera erabiltzea. 		X X X X		X	X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Objektuen eta klaseen ezaugarriak. • Objektuen propietateak edo atributuak. • Metodoaren kontzeptua. • Eraikitzailearen kontzeptua. • Klasearen kontzeptua. • Klase baten egitura eta kideak. 		X X X X		X X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Diseinuan ideiak ekartzeko ekimena izatea. • Lanak egiten dituen bitartean jarrera ordenatua eta metodikoa izatea eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzeko. 		X X							



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da
			Irak.	Ik.			
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.		15 min	X	X	Irakasleak unitate didaktikoa eta barnean hartzen dituen atalak ikasteko helburuak aurkeztuko ditu.	Gaia aurkezteko eta ikasleak gaiaren aurrean jarrera egokia hartzera bultzatzeko.	Proiektagailua. Gaiaren aurkibidea.
J1. Objektu kontzeptua azaldu eta erakustaldia egin.	2	2 h	X	X	Irakasleak objektu kontzeptua azalduko du. Horretarako, mundu errealeko adibideak erabiliko ditu, eta adibide horietan zenbait propietate eta atributu dituzten objektuak eta hainbat metodo erakutsiko ditu. Ondoren, ikasleek, taldeka, proposatzen den aplikaziorako beharrezkoak diren objektuak identifikatuko dituzte, baita atributuak eta metodoak ere, zenbait objektutan.	Aplikazio batean esku hartzen duten objektuak eta horiek osatzen dituzten kideak identifikatzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J2. Klase kontzeptua eta objektuekiko lotura azaldu.	2	2 h	X		Irakasleak klase kontzeptua azalduko du, baita irudikapen zehatza edo objektuetan instantziak egitea ere.	Klase kontzeptua eta objektuekiko lotura ezagutzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.
J3. Klase bat definitzeko sintaxia azaldu eta aplikatu.	5	45 min	X		Irakasleak klase bat definitzeko beharrezko sintaxia azalduko du. Era	Klase bat deklaratzeko beharrezko sintaxia ezagutzeko.	Proiektagailua. Apunteak. Arbel digitala.



					<p>berean, klase bateko kideetara heltzeko metodo klasikoak aurkeztuko ditu: publikoa eta pribatua.</p> <p>Gero, klase bat, haren atributuak eta horiek eskuratzeko metodoak deklaritzen dituen adibide bat jorratuko da.</p>		
J4-E1. Garapen-ingurune integratua azaldu eta aztertu.	4	2 h	X	X	<p>Irakasleak aurreko unitate didaktikoan hasitako garapen-ingurune integratuen azalpena osatuko du.</p> <p>Honako IDE hauek proposatuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Eclipse, NetBeans-ekin batera gehien erabiltzen den doako Java garapen-ingurunea. Lotura honetan deskarga daiteke: www.eclipse.org. -Borland JBuilder, Borland-en Java garapen-ingurune integratu bikaina. Hainbat bertsio mugatu daude, eta lotura honetan deskarga daitezke: www.borland.com. -Microsoft Visual J++. <p>.NET plataformaren barruan Java aplikazioak eraikitze aukera ematen du. «Express» bertsioa dohainik eskura daiteke.</p>	Hainbat garapen-ingurune integratu ezagutzeko, eta garatu beharreko aplikazioaren eskakizunetarako IDE egokia hautatzeko.	<p>Proiektagailua.</p> <p>Apunteak.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Internet.</p>



					Gero, ikasleei IDE horietako bakoitzaren ezaugarriak, alde onak eta alde txarrak islatuko dituen taula bat lantzea eskatuko zaie.		
J5-E2. Klase baten deklarazioaren eta erabileraren arloko ariketa praktikoa gidatua egin.	1,2,4,5	3 h	X	X	Irakasleak klase bat esku hartuko duen aplikazio baten garapena azalduko du. Klaseen eta haren kideen diseinuarekin, edizioarekin, konpilazioarekin eta sintaxiakatsen arazketarekin hasi, eta exekutatzeko den arte, betiere aurreko unitate didaktikoan instalatutako garapen-ingurune integratua erabilita.	Garapen-ingurune integratua erabilita, klase bat deklaratu eta erabiliko duten programa sinpleak sortzeko.	Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J6-E3. Klase baten deklarazioa eta erabilera erakutsiko duen aplikazio bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,2,4,5	3,5 h		X	Ikasleek, banaka, aurreko jardueran erabilitako aplikazioaren antzeko aplikazio baten diseinuari eta inplementazioari buruzko ariketa praktikoa egingo dute. Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.	Garapen-ingurune integratua erabilita, klase bat deklaratu eta erabiliko duten programa sinpleak autonomiaz garatzeko.	Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. Proiektagailua. Arbel digitala.



J7. Eraikitzaile kontzeptua azaldu.	3	1 h	X		Irakasleak eraikitzaile kontzeptua azalduko du, baita hori diseinatzeko eta deklaratzeko jarraibideak ere. Era berean, klase batek hainbat eraikitzaile izateko aukera ikusiko da, gaitzaren kontzeptua azalduta.	Eraikitzaile eta gaitzaren kontzeptuak ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak.
J8-E4. Klase baten deklarazioaren eta eraikitzaileen erabileraren arloko ariketa praktikoa gidatua egin.	Guztiak	2 h	X	X	Irakasleak, kanoien bidez, klase baten diseinuan hainbat eraikitzaile txertatzea erakutsiko du. Horretarako, J5-E2 jardueran egindako aplikazioari hainbat eraikitzaileen diseinua eta erabilera gaineratuko zaio – parametro kopuru desberdina izango dute–.	Klase batean hainbat eraikitzaile diseinatzeko, inplementatzeko eta erabiltzeko.	Ariketa praktikoen enuntziatua biltzen duen dokumentua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J9-E5. Objektuak sortzeko hainbat eraikitzaile erabiliko dituzten klaseak dituen aplikazioa garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	Guztiak	2 h		X	Ikasleek, banaka, unitate didaktikoan garatutako eduki guztiak agertuko diren aplikazio bat diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.	Unitate didaktikoan garatutako osagai guztiak izango dituen klase bat diseinatzeko eta inplementatzeko.	Ariketa praktikoen enuntziatua biltzen duen dokumentua. Apunteak.
J10. Erreparasatu eta zalantzak argitu.	Guztiak	30 min	X	X	Taldean, unitate didaktikoen edukia erreparasatuko dute. Irakasleak zalantzak argituko ditu, eta arbelean eskema bat osatuko du.	Erreparasatzeko eta zalantzak argitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala.



E6. Ebaluazio-proba espezifikoa egin.	Guztiak	2 h		X	<p>Ikasle bakoitzak proba bat egingo du, idatziz edota ordenagailuan; bertan, unitate didaktikoan azaldutako edukiekin zerikusia duten galderari erantzun beharko die.</p> <p>Proba bakoitzak ordubeteko (1 h) iraupena izango du – errekuperazio-azterketarako beharko litzatekeen denbora barne–.</p>	Ikasleek unitate didaktikoan landutako edukiak zein mailatan bereganatu dituzten jakiteko.	IDE batez hornitutako ordenagailua. Azterketa idatziaren gidoia.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> J4-E1 jarduera gauzatzean, ikasleak hainbat garapen-ingurune integratu aztertuko ditu, eta irakasleak garatu beharreko aplikazioaren eskakizunen arabera IDE egokiena hautatzen gidatu beharko du ikaslea. Objektuei orientatutako programazio-lengoaia gisa Java erabiltzeko UD1 unitate didaktikoan egindako proposamenarekin jarraituz, garapen-inguruneen ezagutza osatzeko Eclipse, Borland JBuilder eta Microsoft Visual J++ inguruneak aztertzea proposatzen da. 							



3. unitate didaktikoa: KONTROL EGITUREN APLIKAZIOA

Iraupena: 26 ordu

IE3: Kodea idatzi eta arazten du, eta, eginkizun horretan, lengoaiaren kontrol-egiturak aztertu eta erabiltzen ditu.

Ikaskuntza-helburuak:

1. Hautespene-egiturak erabiltzen dituen kodea idaztea eta probatzea.
2. Errepikatze-egiturak erabiltzea.
3. Jauzi-sententzien aukerak ezagutzea.
4. Programa exekutagarriak sortzea hainbat kontrol-egitura erabilita.
5. Programak probatzea eta araztea.
6. Kodearen iruzkinak sartzeko eta dokumentatzea.

EDUKIAK		Multzok								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kontrol-egiturak erabiliko dituen kodea inplementatzea eta probatzea: <ul style="list-style-type: none"> - Hautespene-egiturak. - Errepikatze-egiturak. • Jauzi-sententzien aukerak ezagutzea. • Programa exekutagarriak sortzea, hainbat kontrol-egitura erabiliz. • Programak probatzea eta araztea, garapen-ingurune integratua erabiliz. • Kodearen iruzkinak sartzeko eta dokumentatzea. 			X						
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hautespene-egiturak: <ul style="list-style-type: none"> - If sententzia. - If sententziaren habiaraketa. - Switch sententzia. • Errepikatze-egiturak: <ul style="list-style-type: none"> - While sententzia. - Do while sententzia. - For sententzia. - Begizta habiaratuak. • Jauzi-egiturak. 			X						



	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentatzeko tresnak. 													
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Ideiak ekartzeko ekimena izatea, taldearekin lankidetzan jardutea eta komunikazioan errespetuz jokatzeta. Ekimena izatea programen diseinuari ekarpenak egitean. Programak probatzeko eta arazteko fasea balioztatzea. 						X							
JARDUERA					METODOLOGIA				BALIABIDEAK					
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da							
			Irak.	Ik.										
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.		15 min	X	X	Irakasleak unitate didaktikoa eta barnean hartzen dituen atalak ikasteko helburuak aurkeztuko ditu.	Gaia aurkezteko eta ikasleak gaiaren aurrean jarrera egokia hartzera bultzatzeko.	Proiektagailua. Gaiaren aurkibidea.							
J1. <i>If</i> hautespen-egiturari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,4,5	2 h	X	X	Azalpenari hasiera emateko, irakasleak programetan hautespen-sententziak sartzearen beharra ulertaraziko die ikasleei. Ondoren, <i>if</i> sententziaren sintaxia eta portaera azalduko du. Sententzia hori erabiltzen duten programa-kodeen adibideen bitartez egingo du azalpena. Ikasleek eman zaizkien adibideak erreproduzitu beharko dituzte haien ekipamenduetan.	<i>If</i> hautespen-sententzia ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.							
J2-E1. <i>If</i> hautespen-sententziak erabiltzen dituen programa bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,4,5	1 h		X	Ikasleek, banaka, <i>if</i> hautespen-sententziak barnean hartzea eskatuko duen programa bat diseinatzeko eta ondoren inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute. Ariketa amaitzen dutenean, ikasle	<i>If</i> hautespen-sententzia erabiltzen duten programa sinpleak garatzeko.	Ariketa praktikorearen enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.							




					bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.		
J3. <i>Switch</i> hautespen-egiturari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,4,5	2 h	X	X	Irakasleak azalpenekin hasteko <i>switch</i> sententzia erabiltzearen beharra erakutsiko du. Ondoren, sententzia horren sintaxia eta portaera azalduko du. Sententzia hori erabiltzen duten programakodeen adibideen bitartez egingo du azalpena. Ikasleek eman zaizkien adibideak erreproduzitu beharko dituzte haien ekipamenduetan.	<i>Switch</i> hautespen-sententzia ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J4-E2. <i>Switch</i> hautespen-sententziak erabiltzen dituen programa bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,4,5	1 h		X	Ikasleek, banaka, <i>switch</i> hautespen-sententziak barnean hartzea eskatuko duen programa bat diseinatzeko eta ondoren inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute. Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.	<i>Switch</i> hautespen-sententzia erabiltzen duten programa sinpleak garatzeko.	Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J5. <i>While</i> errepikatze-egiturari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	2,4,5	2 h	X	X	Azalpenari hasiera emateko, irakasleak programetan errepikatze-sententziak sartzearen beharra ulertaraziko die ikasleei. Ondoren, <i>while</i> sententziaren sintaxia	<i>While</i> errepikatze-sententzia ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.



					<p>eta portaera azalduko du. Sententzia hori erabiltzen duten programa-kodeen adibideen bitartez egingo du azalpena.</p> <p>Ikasleek eman zaizkien adibideak erreproduzitu beharko dituzte haien ekipamenduetan.</p>		
J6-E3. <i>While</i> errepikatze-sententziak erabiltzen dituen programa bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	2,4,5	1 h		X	<p>Ikasleek, banaka, <i>while</i> errepikatze-sententziak barnean hartzea eskatuko duen programa bat diseinatzeko eta ondoren inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	<i>Do while</i> errepikatze-sententzia erabiltzen duten programa sinpleak garatzeko.	Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J7. <i>Do while</i> errepikatze-egiturari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	2,4,5	2 h	X	X	<p>Irakasleak <i>do while</i> sententziaren sintaxia eta portaera azalduko du. Sententzia hori erabiltzen duten programa-kodeen adibideen bitartez egingo du azalpena.</p> <p>Ikasleek eman zaizkien adibideak erreproduzitu beharko dituzte haien ekipamenduetan.</p>	<i>Do while</i> errepikatze-sententzia ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J8-E4. «Do while» errepikatze-sententziak erabiltzen dituen programa bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	2,4,5	1 h		X	<p>Ikasleek, banaka, <i>do while</i> errepikatze-sententziak barnean hartzea eskatuko duen programa bat diseinatzeko eta ondoren</p>	<i>Do while</i> errepikatze-sententzia erabiltzen duten programa sinpleak garatzeko.	Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua.

					<p>inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>		Arbel digitala.
J9. For errepikatze-egiturari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	2,4,5	2 h	X	X	<p>Irakasleak, <i>for</i> sententziaren sintaxia eta portaera azalduko du. Sententzia hori erabiltzen duten programa-kodeen adibideen bitartez egingo du azalpena.</p> <p>Ikasleek eman zaizkien adibideak erreproduzitu beharko dituzte haien ekipamenduetan.</p>	<i>For</i> errepikatze-sententzia ezagutzeko eta erabiltzeko.	<p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Apunteak.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J10-E5. For errepikatze-sententziak erabiltzen dituen programa bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	2,4,5	1 h		X	<p>Ikasleek, banaka, <i>for</i> errepikatze-sententziak barnean hartzea eskatuko duen programa bat diseinatzeko eta ondoren inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	<i>For</i> errepikatze-sententzia erabiltzen duten programa sinpleak garatzeko.	<p>Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p> <p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p>
J11-E6. Hainbat hautespen- eta errepikatze-sententzia erabiltzen dituen programa bat garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,4,5	2 h		X	<p>Kontrol-sententzia egokiak hautatu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute ikasleek, banaka.</p>	Hainbat kontrol-sententzia erabiltzen dituzten programak autonomiaz garatzeko, betiere eraginkortasunik handiena lortzeko egokienak hautatuz.	<p>Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p> <p>Proiektagailua.</p>



					Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.		Arbel digitala.
J12. Jauzi-instrukzioei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	3,4,5	2 h	X	X	<p>Azalpenari hasiera emateko, irakasleak programetan jauzi-sententziak sartzearen beharra ulertaraziko die ikasleei.</p> <p>Ondoren, <i>break</i> eta <i>continue</i> sententzien sintaxia eta portaera azalduko du.</p> <p>Sententzia hori erabiltzen duten programa-kodeen adibideen bitartez egingo du azalpena.</p> <p>Ikasleek eman zaizkien adibideak erreproduzitu beharko dituzte haien ekipamenduetan.</p>	Jauzi-instrukzioak ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J13. Kodean iruzkinak jartzeko eta dokumentatzeko beharra eta horretarako beharrezko tresnei buruzko azalpenak eman.	6	1 h	X		<p>Erroreak araztera eta ondoren mantentzera begira, kodean iruzkinak jartzeko eta dokumentatzeko beharra emango die aditzera irakasleak ikasleei.</p> <p>Ondoren, programen kodean iruzkinak jartzeko eta dokumentatzeko beharrezko teknikak aurkeztuko ditu.</p>	Iruzkinak txertatzea eta dokumentatzea baloratzeko, eta horretarako beharrezko tresnak ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J14-E7. Unitate didaktikoan azaldutako kontrol-instrukzio guztiak erabiliko dituzten programak garatzeko ariketa	Guztiak	2 h		X	Unitate didaktikoan azaldu diren kontrol-sententzia egokiak hautatu eta erabili behar dituzten zenbait programa	Unitate didaktikoan azaldutako tresna guztiak erabilia, programak lantzeko.	Ariketa praktikoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua.



praktiko autonomia egin.					<p>diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute ikasleek, banaka. Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>		Proiektagailua. Arbel digitala.
J15. Erreparasatu eta zalantzak argitu.	Guztiak	45 min	X	X	Taldean, unitate didaktikoen edukia erreparasatuko dute. Irakasleak zalantzak argituko ditu, eta arbelean eskema bat osatuko du.	Erreparasatzeko eta zalantzak argitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. IDE batez hornitutako ordenagailua.
E8. Ebaluazio-proba espezifiko egin.	Guztiak	3 h		X	<p>Ikasle bakoitzak proba bat egingo du, idatziz edota ordenagailuan; bertan, unitate didaktikoan azaldutako edukiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko die.</p> <p>Proba bakoitzak ordu eta erdiko (1,5 h) iraupena izango du –errekuperazio-azterketarako beharko litzatekeen denbora barne–.</p>	Ikasleek unitate didaktikoan landutako edukiak zein mailatan bereganatu dituzten jakiteko.	IDE batez hornitutako ordenagailua. Azterketa idatziaren gidioa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> J11-E6 eta J14-E7 jarduerak egitean, ikasleek fluxua kontrolatzeko sententziak erabiltzen dituzten programak garatu beharko dituzte. Irakasleak ikasleak gidatuko ditu IDEan integratutako araztailearen erabileran, exekuzio-erroreak zuzentzeko. 							



4. unitate didaktikoa: OBJEKTUEI ORIENTATUTAKO PROGRAMAZIOAN OINARRITUTAKO APLIKAZIO BATEN EGITURA GARATZEA: OBJEKTUAK ETA KLASEAK. AURREZ DEFINITUTAKO KLASEAK ERABILTZEA.

Iraupena: 30 ordu

IE2: Programa sinpleak idatzi eta probatzen ditu, eta, eginkizun horretan, objektuei orientatutako programazioaren oinarriak ezagutu eta aplikatzen ditu.

IE4: Hainbat klastetan antolatutako programak garatzen ditu, eta, eginkizun horretan, objektuei orientatutako programazioaren printzipioak aztertu eta aplikatzen ditu.

IE5: Informazioaren sarrerako eta irteerako eragiketak egiten ditu, eta, eginkizun horretan, lengoaiaren prozedura espezifikoak eta klase-liburutegiak erabiltzen ditu.

Ikaskuntza-helburuak:

1. Klaseak definitzea.
2. Propietateak eta metodoak definitzea.
3. Eraikitzaileak sortzea.
4. Lehenago sortutako klaseetako objektuak instantziatu eta erabiliko dituzten programak garatzea.
5. Klaseen eta haien kideen ikuspena kontrolatzeko mekanismoak erabiltzea.
6. Objektu-liburutegiak gehitzea eta erabiltzea.
7. Metodo estatikoetarako deiak idaztea.
8. Parametroak erabiltzea metodoetarako deian.
9. Objektuak instantziatzea aurrez definitutako klaseak abiapuntutzat hartuta.
10. Lengoaiaren eta lotutako liburutegien sarrerako/irteerako aukerak ezagutzea.

EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Klaseak implementatzea. • Objektuen instantziak egitea. • Klasearen propietateak eta metodoak deklaratzeko. • Eraikitzaileak sortzea. • Aurretik sortutako klaseetako objektuak instantziatu eta erabiltzen dituzten aplikazioak implementatzea. • Klaseen eta haien kideen ikuspena kontrolatzeko mekanismoak erabiltzea. • Metodo estatikoak sortzea eta erabiltzea. • Metodoetarako deietan parametroak erabiltzea. 		X		X					

	<ul style="list-style-type: none"> Objektu-liburutegiak gehitzea eta erabiltzea. Aplikazio baten parte diren fluxuak identifikatzea. 		X				X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Klase bateko kideen sarbide-kontrola: <ul style="list-style-type: none"> Sarbide lehenetsia. Sarbide publikoa. Sarbide pribatua. Sarbide babestua. Kontsola programatzeko tresnak: informazioaren sarrera eta irteera. Metodo estatikoaren kontzeptua. Parametroak eta balio itzuliak. Objektu-liburutegiak. Atributuak eta sarbide-kontrola definitzeko tresnak. Metodoak eta argumentuak deklaratzeko tresnak. Eraikitzaileen diseinuko tresnak eta eraikitzailearen gainkarga. Fluxuaren kontzeptua. Fluxuei dagozkien klaseak. Datuak teklatutik sartzeko tresnak. Datuak pantailatik irteteko tresnak. 		X	X	X	X	X	X	X	X	X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Lanak egiten dituen bitartean jarrera ordenatua eta metodikoa izatea eta zailtasunen aurrean saiaturi jokatzeko. Modu autonomoan aldatzeko eta hobetzeko alde aurreko jarrera izatea. Ideiak ekartzeko ekimena izatea, taldearekin lankidetzan jardutea eta komunikazioan errespetuz jokatzeko. Ekarpenetan sormena izatea. 					X	X	X	X		
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da				
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.		15 min	X	X	Irakasleak unitate didaktikoaren ikaskuntza-helburuak eta atalak aurkeztuko ditu.	Gaia aurkezteko eta ikasleak gaiaren aurrean jarrera egokia hartzera bultzatzeko.	Proiektagailua. Gaiaren aurkibidea.				


J1-E1 2. unitate didaktikoan garatutako klase eta objektu kontzeptuak errepasatu.	1,2	1 h	X	X	Irakasleak 2. unitatean garatutako objektu eta klase kontzeptuak errepasatzeari ekingo dio, baita horiek inplementatzeko beharrezko arau sintaktikoak errepasatzeari ere. Horretarako, ikasleekin elkarerragingo du galderen bidez.	Klaseak, propietateak eta metodoak definitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J2. Aplikazio baten egiturari buruzko azalpenak eman.	1,2,6	2 h	X		Irakasleak, adibideen bidez, aplikazio baten egitura azalduko du, eta haren osagaietako bakoitza aztertuko du: klaseak inportatzeko sententziak, aplikazio-klasea, definizioak, deklarazioak eta exekuzio-sententziak.	Klaseetan oinarritutako aplikazio baten egitura ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J3. Klase bateko kideak babesteko metodoei buruzko azalpenak eman.	1,2,5	1,5 h	X		Klase bateko kideetara sartzeko lengoaiak ematen dituen sarbide-kontrolerako metodoak azalduko ditu irakasleak: publikoa, pribatua eta babestua.	Klase bateko kideen ikuspena kontrolatzeko mekanismoak ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J4. Klase bateko propietateetara eta metodoetara sartzeko kontrol-metodoen aplikazioari buruzko erakustaldia egin.	1,2,5	1,5 h	X	X	Irakasleak klaseko kideetara sartzeko moduak aplikatuko dituen klasea inplementatuko du: atributuak eta metodoak, aurreko jardueran azaldukoak. Ikasle bakoitzak nork bere ekipamenduan garatutako inplementazioa erreproduzituko du.	Klase bateko kideen ikuspena kontrolatzeko mekanismoak erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J5. Pakete kontzeptua azaldu eta aurrez definitutako klaseak inportatzeko	6	1 h	X		Irakasleak pakete kontzeptua azalduko du. Gero, paketearen	Aurrez definitutako objektuen liburutegiak erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala.



sententziak erabili.					barruan klase bat babesteko mekanismoak aztertuko ditu. Azkenik, pakete bateko klase batek beste pakete bateko klase bat erabili ahal izateko mekanismoak azalduko ditu.		Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J6. Klase bateko objektuak sortzeko mekanismoak azaldu eta erakutsi.	3,4	2 h	X	X	Irakasleak, aplikazioen adibideak erabilita, klase bateko objektuen sorrera azalduko du, parametro kopuru desberdina duten eraikitzaileen analisiaren eta diseinuaren bitartez eta, ondoren, horiei deitzearen bitartez. Gero, erabiltzaileak definitutako klaseen objektuen sorrerako adibideak emango ditu, baita lengoaiak emandako klaseenak ere. Ikasleek haien ekipamenduetan gauzatuko dituzte planteatzen zaizkien adibideak.	Erabiltzaileak definitutako klaseak eta lengoaiak emandako klaseak abiapuntu izanik, objektuak instantziatzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J7. Klase bateko objektuak amaitzeko mekanismoak azaldu.	3,4	1 h	X		Behar ez direnean, objektuen memoria libratzeko eta suntsitzeko lengoaiak ematen dituen mekanismoak erakutsiko ditu.	Memoria libratzera bideratzen diren mekanismoak ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J8. Objektuen erreferenziaren kontzeptua azaldu eta aplikatu.	4	1 h	X		Irakasleak erreferenziaren kontzeptua azalduko du, objektuen erreferentziak deklaratzeko eta erabiltzeko programen adibideak erabilita.	Objektuen erreferentziak ezagutzeko eta erabiltzeko.	
J9. Parametroak dituzten metodoak deklaratzeko eta garatzeko tresnen	7,8	3 h	X	X	Irakasleak metodoak garatzeko beharrezko tresnak azalduko ditu, eta	Parametro-pasatzea duten metodoak ezagutzeko eta implementatzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala.



erabilera azaldu eta erakustaldia egin.					<p>parametroak pasatzeko moduak erakutsiko ditu: balioa eta erreferentzia.</p> <p>Azalpen horiek emateko, parametro-pasatzeak gertatzen diren metodoak garatuko dituzten adibideak erabiliko ditu.</p> <p>Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.</p>		<p>Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J10-E2. Aplikazio batean metodoak garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,2,3,4,7,8	3 h		X	<p>Ikasleek, banaka, parametro-pasatzea duten metodoak diseinatzea eta implementatzea eskatzen duten hainbat programa diseinatze eta ondoren implementatzeko ariketa praktikoa egingo dute. Era berean, sortutako kodea iruzkindu eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	Argudioak dituzten metodoak implementatzen dituzten programak garatzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Ariketa praktikokoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J11. Helburu orokorreko liburutegiak barne hartzen dituzten klaseak aztertu.	9,10	1 h	X		Objektuei orientatutako programazio-lengoaiak eskaintzen dituen helburu orokorreko klase-liburutegiak azaldu eta aztertuko ditu irakasleak.	Lengoaiak aurrez definitutako klase-liburutegiak ezagutzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J12. Sarrera eta irteera estandarra maneiatzeko aurrez definitutako klaseak azaldu eta erabili.	9,10	2 h	X	X	Sarrera eta irteera estandarra maneiatzeko lengoaiak ematen dituen liburutegiei dagozkien klaserik	Sarrerarako eta irteerarako lengoaiak eskaintzen dituen klaseak erabiltzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak.</p>



					<p>erabilienak aztertuko ditu irakasleak.</p> <p>Jarraian, klase horietako objektuak instantziatzen eta manipulaten dituzten adibideak erakutsiko ditu.</p> <p>Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.</p>		IDE batez hornitutako ordenagailua.
J13-E3. Sarrera eta irteera estandarra erabiltzeko lengoaiak eskaintzen dituen liburutegiak erabiltzen dituzten aplikazioak garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	Guztiak	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, sarrera eta irteera maneiatzeko klaseak eskaintzen dituzten liburutegiak inportatu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	Sarrera eta irteera estandarra erabiltzeko, liburutegiak baliatzen dituzten aplikazioak garatzeko.	<p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Ariketa praktikokoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J14. Eragiketa matematikoak exekutatzeko metodoak dituzten klaseak aztertu eta erabili.	9	2 h	X	X	<p>Eragiketa matematikoak exekutatzeko lengoaiak eskaintzen dituen liburutegiei dagozkien klaserik erabilienak aztertuko ditu irakasleak.</p> <p>Jarraian, klase horietako objektuak instantziatzen eta manipulaten dituzten zenbait aplikazio erakutsiko ditu.</p>	Eragiketa matematikoak eskaintzen dituzten liburutegiak ezagutzeko.	<p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Apunteak.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>



					Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.		
J15-E4. Eragiketa matematikoak egiteko lengoaiak eskaintzen dituzten liburutegiak erabiltzen dituzten aplikazioak garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	Guztiak	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, eragiketa matematikoak egiteko klaseak eta metodoak eskaintzen dituzten liburutegiak inportatu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	Eragiketa matematikoak eskaintzen dituzten liburutegiak txertatzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J16. Erreparasatu eta zalantzak argitu.	Guztiak	45 min	X	X	Taldean, unitate didaktikoaren edukiak erreparasatu dituzte. Irakasleak zalantzak argituko ditu, eta arbelean eskema bat osatuko du.	Erreparasatzeko eta zalantzak argitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. IDE batez hornitutako ordenagailua.
E5. Ebaluazio-proba espezifikoa egin.	Guztiak	3 h		X	<p>Ikasle bakoitzak proba bat egingo du, idatziz zein ordenagailuan, eta bertan unitate didaktiko honetan azalduko edukiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko die.</p> <p>Proba bakoitzak ordu eta erdiko (1,5 h) iraupena izango du –errekuperazio-azterketarako beharko litzatekeen denbora barne–.</p>	Ikasleek unitate didaktikoan landutako edukiak zein mailatan bereganatu dituzten jakiteko.	IDE batez hornitutako ordenagailua. Azterketa idatziaren gidoia.



OHARRAK

- J11 eta J12 jardueretan, irakasleak lengoaiak eskaintzen dituen helburu orokorreko liburutegietan barnean hartzen diren klaseak aztertuko ditu. Horretarako, objektuei orientatutako programazio-lengoaia gisa Java erabilita –1. unitate didaktikoan egindako proposamenari jarraituz–, honako pakete hauek aztertzea proposatzen da: `java.io` eta `java.lang`.
- J14 eta J15-E4 jarduerak garatzeko –jarduera horietan eragiketa matematikoak exekutatzeko metodoak dituzten klaseak aztertu eta erabiliko dira–, `java.lang` paketeko `Math` klasea aztertzea eta erabiltzea proposatzen da.



5. unitate didaktikoa: INFORMAZIOA DATU EGITURETAN BILTEGIRATZEA

Iraupena: 35 ordu

IE6: Informazioa manipulatu duten programak idazten ditu, eta, eginkizun horretan, datu mota aurreratuak hautatu eta erabiltzen ditu.


Ikaskuntza-helburuak:

1. Array-ak erabiltzen dituzten programak idaztea.
2. Datu mota aurreratuekin erlazionatutako klase-liburutegiak ezagutzea.
3. Eskura dauden datu-bilduma bakoitzaren ezaugarriak eta abantailak ezagutzea.
4. Zerrendak erabiltzea informazioa biltegitratzeko eta prozesatzeko.
5. Zerrendetako elementuak jorratzeko, iteratzaileak erabiltzea.

EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Programak array elementuak erabiliz inplementatzea eta diseinatzea. • Lengoaiak eskaintzen dituen datu-bildumak erabiltzearen abantailak eta bilduma horien ezaugarriak aztertzea. • Egitura dinamikoak erabiltzeko beharra aztertzea. • Zerrendak inplementatzen dituzten eta horien gainean eragiketak probatzen dituzten aplikazioak garatzea. 						X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Egituraren kontzeptua. • Matrizeen edo array elementuen definizioa eta ezaugarriak. • Array elementuak erabiltzeko tresna: deklarazioa, hasieratzea, osagaiak atzitzea. • Array dimentsioaniztunen ezaugarriak, eta horiek erabiltzeko tresnak. • Karaktere-kateak. Irakurtzeko eta idazteko eragiketak. • Karaktere-kateak maneiatzeko lengoaiak eskaintzen dituen klaseak. • Objektu-bildumen ezaugarriak. • Egitura dinamikoak: zerrendak. • Zerrenda linealen arloko eragiketak: txertatzea, bilatzea, jorratzea, ezabatzea. • Zerrenda zirkularrak eta bitan lotuak. • Pilen eta ilaren kontzeptua eta ezaugarriak. 						X			




JARRERAZKOAK																				
<ul style="list-style-type: none"> Egitura-deklarazioan egin beharreko zereginak metodikoki planifikatzea. Modu autonomoan aldatzeko eta hobetzeko aldez aurreko jarrera izatea. Helburuak lortzeko profesionaltasunez eta erantzukizunez jokatzeko. Ideiak ekartzeko ekimena izatea, taldearekin lankidetzan jardutea eta komunikazioan errespetuz jokatzeko. 																				
JARDUERA					METODOLOGIA						BALIABIDEAK									
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota		Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da												
				Irak.	Ik.															
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.			15 min	X	X	Irakasleak unitate didaktikoaren ikaskuntza-helburuak eta atalak aurkeztuko ditu.	Gaia aurkezteko eta ikasleak gaiaren aurrean jarrera egokia hartzera bultzatzeko.	Proiektagailua. Gaiaren aurkibidea.												
J1. Array edo matrizearen kontzeptuari buruzko azalpenak eman.		1	1 h	X		Azalpenari hasiera emateko, irakasleak datu independenteekin lan egitearen aurrean datu-egiturak sartzeko beharra sortuko du . Ondoren, arrayen edo matrizeen ezaugarriak azalduko ditu, hainbat dimentsiotako arrayak erakutsiko dituzten adibide grafiko bidez.	Datu-egitura estatikoak ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.												
J2. Matrize dimentsiobakarren kontzeptuari buruzko azalpenak eman.		1	30 min	X		Irakasleak aurreko jardueran azalduko ezaugarriak zehaztuko ditu zenbakizko matrize dimentsiobakarretan. Ondoren zenbakizko matrize dimentsiobakarra deklaratzeko beharrezko sintaxia azalduko du.	Matrize dimentsiobakarrak ezagutzeko eta definitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.												
J3. Matrize dimentsiobakar baten erabilerari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.		1	2 h	X	X	Irakasleak jada deklaraturako matrizea erabiltzeko beharrezko etapak erakutsiko ditu.	Matrize dimentsiobakarrak barne hartzen dituzten soluzioak lantzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak.												



					<p>Lehen urratsa sorrera-eragilearen bidez sortzean datza.</p> <p>Ondoren, matrizea nola hasten den erakutsiko du, eta, azkenik, matrizearen elementu bakoitzera sartzeko mekanismoak azalduko ditu.</p> <p>Azalpen horretarako, zenbakizko matrize dimentsiobakarrak deklaritzen eta erabiltzen dituzten programen kodearen adibideak erabiliko ditu.</p> <p>Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.</p>		IDE batez hornitutako ordenagailua.
J4-E1. Matrize dimentsiobakarrak erabiltzen dituzten programak garatzeko ariketa praktiko autonomoa egin.	1	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, zenbakizko matrize dimentsiobakarrak deklaratu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	Matrize dimentsiobakarrak erabiltzen dituzten programak garatzeko.	<p>Ariketa praktikoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p> <p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p>
J5. Zerrendak manipulatzeko bilduma-datu motei buruzko azalpenak eman.	2,3	1 h	X		<p>Irakasleak, azalpenari hasiera ematean, matrize dimentsiobakarrak edo zerrendak sortzeko eta</p>	Zerrenda edo bilduma-datuen mota ezagutzeko.	<p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Apunteak.</p>



					<p>manipulatzeko Javaren – ArrayList–liburutegiak eskaintzen dituen klase generikoaren ezaugarriak erakutsiko ditu.</p> <p>Ondoren, gisa horretako bilduma-datuen mota erabilia, matrize bat deklaratzeko sintaxia azalduko du.</p>		IDE batez hornitutako ordenagailua.
<p>J6. Bilduma-datuen motak emandako metodoei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.</p>	2,3	3 h	X	X	<p>Irakasleak bilduma gisako datuekin lan egiteko lengoaiak eskaintzen dituen metodo bakoitza azalduko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bildumaren amaieran elementu bat gaineratzea. – Posizio jakin batean elementu bat txertatzea. – Bildumako elementu bat aldatzea, beste batekin ordezkatuta. – Bilduma baten tamaina ezagutzea. – Bilduma baten elementuak ezabatzea. – Bilduma baten elementuak bilatzea. – Zerrendak kopiatzea. <p>Azalpen horretarako, metodo bakoitza aplikatzeko adibideak erabiliko ditu.</p> <p>Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.</p>	<p>Bilduma-datuen motak maneiatzeko lengoaiak eskaintzen dituen metodoak ezagutzeko eta erabiltzeko.</p>	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>



<p>J7. Zerrendetako elementuak jorrazteko iteratzailearen kontzeptua azaldu eta aplikatu.</p>	5	1 h	X	X	<p>Irakasleak bilduman zehar nabigatzeko erabiltzen den iteratzailearen kontzeptua azalduko du. Horretan, elementuak identifikatzeko ez da beharrezkoa erabiltzen den mota ezagutzea.</p> <p>Ondoren, eta iteratzaile-klaseak ematen duen metodo bakoitzaren adibideen bitartez, sintaxia eta aplikazioa erakutsiko du.</p> <p>Azkenik, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzitu dituzte aztertutako adibideak.</p>	<p>Zerrendetako elementuak jorrazteko iteratzaileak ezagutzeko eta aplikatzeko.</p>	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
<p>J8-E2. Bilduma-datuen motak eskainitako metodoak erabiltzen dituzten programak garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.</p>	2,3,5	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, bildumak deklaratu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	<p>Bilduma-datuen motak eskainitako metodoak erabiltzen dituzten programak garatzeko.</p>	<p>Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.</p>
<p>J9. Karaktere-katearen kontzeptuari buruzko azalpenak eman.</p>	1,2	1 h	X		<p>Irakasleak karaktere-katearen kontzeptua azalduko du, karaktere gisako elementuen matrize dimentsiobakar gisa.</p>	<p>Lengoaiak eskaintzen duen karaktere-katearen datu motak ezagutzeko.</p>	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>

					Ondoren, karaktere-kateak sortzeko eta maneiatzeko lengoaiak eskaintako objektuen klasea aztertuko du.		
J10. <i>String</i> klaseak emandako metodoari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,2	2 h	X	X	Irakasleak <i>string</i> gisako datuekin lan egiteko lengoaiak eskaintzen dituen metodo bakoitza azalduko du: Azalpen horretarako, metodo bakoitza aplikatzeko adibideak erabiliko ditu. Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.	<i>String</i> klasea maneiatzeko lengoaiak eskaintzen dituen metodoak ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J11-E3. <i>String</i> klaseak emandako datuak erabiltzen dituzten programak garatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,2	2 h		X	Ikasleek, banaka, <i>string</i> klaseak emandako metodoak aplikatuta karaktere-kateak deklaratu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute. Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute. Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.	Karaktere-kateko klaseak emandako metodoak erabiltzen dituzten programak garatzeko.	Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J12. Matrize dimentsioaniztunen kontzeptuari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1	2 h	X	X	Irakasleak matrize dimentsioaniztunen ezaugarriak azalduko ditu. Ondoren, zenbakizko matrize	Matrize dimentsioaniztunak ezagutzeko eta programetan erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak.



					<p>dimentsioaniztuna deklaratzeko beharrezko sintaxia azalduko du.</p> <p>Gero, behin deklaratura matrize bat erabiltzeko etapak, haren sorrera eta hasieratzea azalduko ditu, baita matrizearen elementue bakoitzera sartzeko mekanismoak ere.</p> <p>Azalpen horretarako, zenbakizko matrize dimentsioaniztunak deklaratu eta erabiltzen dituzten programen kodearen adibideak erabiliko ditu.</p> <p>Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzitu dituzte aztertutako adibideak.</p>		IDE batez hornitutako ordenagailua.
J14-E4. Matrize dimentsioaniztunak erabiltzen dituzten programak garatzeko ariketa praktiko autonomoa egin.	1,2	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, zenbakizko matrize dimentsioaniztunak deklaratu eta erabili behar dituzten zenbait programa diseinatzeko eta, ondoren, inplementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p> <p>Era berean, sortutako kodean iruzkinak jarri beharko dituzte eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitzen dutenean, ikasle bakoitzak proiektagailu baten bitartez azalduko du bere soluzioa, eta taldeko gainerako ikasleek aztertu eta oharrak egingo dituzte.</p>	Matrize dimentsioaniztunak erabilia programak lantzeko.	<p>Ariketa praktikoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p> <p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p>



J15. Egitura dinamikoen kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	2,4	30 min	X		<p>Azalpenari hasiera emateko, irakasleak datu estatikoekin lan egitean datu-egitura dinamikoak (datu-egitura estatikoen orde) sartzeko beharra ulertaraziko du.</p> <p>Ondoren, zerrenda lotuen kontzeptua eta ezaugarriak azalduko ditu adibide grafikoekin bitartez.</p>	Datu-egitura dinamikoak ezagutzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J16. Zerrenda linealak edo lotuak maneiatzeko oinarrizko eragiketak azaldu eta erakustaldia egin.	2,4	3 h	X	X	<p>Irakasleak zerrenda lotuekin egin daitekeen eragiketa bakoitza azalduko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Posizio jakin batean elementu bat txertatzea. – Zerrendako elementu bat bilatzea. – Zerrendako elementuak jorratzea. – Zerrendako elementuak ezabatzea. <p>Azalpen horretarako, eragiketa bakoitza aplikatzeko adibideak erabiliko ditu.</p> <p>Ondoren, ikasleek beraien ekipamenduetan erreproduzitu dituzte aztertutako adibideak.</p>	Zerrenda linealak edo lotuak ezagutzeko eta erabiltzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J17. Zerrenda zirkularren eta bitan lotutako kontzeptuari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	2,4	2 h	X	X	<p>Irakasleak, hasteko, zerrenda zirkularren kontzeptua azalduko du, eta, horretarako, datu-egitura hori eta zerrendako elementuen arteko loturak islatuko dituzten adibide grafikoak</p>	Zerrenda zirkularrak eta bitan lotutakoak ezagutzeko eta erabiltzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>



					emango ditu, baita zerrendako lehen elementuaren eta azkenaren arteko lotura islatuko dutenak ere. Ondoren, bitan lotutako zerrendaren kontzeptua azalduko du, eta zerrendako nodoen arteko loturak grafikoki erakutsiko ditu.		
J18. Pilaren kontzeptuari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	2,4	2 h	X	X	Irakasleak pilen ezaugarriak grafikoki erakutsita hasiko du azalpena. Gero, IDEa erabiliz pila kontzeptua inplementatuko du, baita pilak maneiatzeko eragiketa nagusiak ere: pila sortzea, elementu bat pilaratzea, elementu bat pilatik ateratzea eta pila jorratzea. Ondoren, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dute inplementazio hau.	Pila-datuaren mota ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J19. Ilararen kontzeptuari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	2,4	2 h	X	X	Irakasleak, hasteko, ilaren ezaugarriak grafikoki azalduko ditu. Gero, IDEa erabiliz ilara kontzeptua inplementatuko du, baita ilarak maneiatzeko eragiketa nagusiak ere: ilara bat sortzea, elementu bat ilaran sartzea, elementu bat ilaratik ateratzea, eta ilara jorratzea. Ondoren, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dute inplementazio hori.	Ilara-datuaren mota ezagutzeko eta erabiltzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.



J20. Erreparasatu eta zalantzak argitu.	Guztiak	45 min	X	X	Taldean, unitate didaktikoaren edukiak erreparasatu dituzte. Irakasleak zalantzak argituko ditu, eta arbelean eskema bat osatuko du.	Erreparasatzeko eta zalantzak argitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. IDE batez hornitutako ordenagailua.
E5. Ebaluazio-proba espezifikoa egin.	Guztiak	3 h		X	Ikasle bakoitzak proba bat egingo du, idatziz edota ordenagailuan; bertan, unitate didaktikoan azaldutako edukiak zerikusia duten galderei erantzun beharko die. Proba bakoitzak ordu eta erdiko (1,5 h) iraupena izango du –errekuperazio-azterketarako beharko litzatekeen denbora barne–.	Ikasleek unitate didaktikoan landutako edukiak zein mailatan bereganatu dituzten jakiteko.	IDE batez hornitutako ordenagailua. Azterketa idatziaren gidioa.

OHARRAK

- J5 eta J6 jardueretan, irakasleak lengoaiak eskaintzen dituen zerrendak maneiatzeko bilduma-datuen mota aztertuko du. Horretarako, objektuei orientatutako programazio-lengoia gisa Java erabilita –1. unitate didaktikoan egindako proposamenari jarraituz–, ArrayList datuen mota aztertzea proposatzen da.
- J9 eta J10 jarduerak garatzean, irakasleak karaktere-katearen datu mota inplementatzeko lengoaiak eskaintzen duen klasea aztertuko du. Lengoaia gisa Java erabiltzeko proposamena kontuan izanik, String klasea aztertzea proposatzen da.

6. unitate didaktikoa: ABSTRAKZIO MEKANISMOAK APLIKATZEA: KLASEAK, PAKETEA, AZPIKLASEAK ETA INTERFAZEAK

Iraupena: 32 ordu

IE4: Hainbat klasetan antolatutako programak garatzen ditu, eta, eginkizun horretan, objektuei orientatutako programazioaren printzipioak aztertu eta aplikatzen ditu.

IE7: Programak garatzen ditu, eta, horretarako, objektuei orientatutako lengoaien eta programazio-ingurunearen ezaugarri aurreratuak aplikatzen ditu.

Ikaskuntza-helburuak:

1. Klase heredatuak definitzea eta erabiltzea.
2. Metodo estatikoak sortzea eta erabiltzea.
3. Interfazeak definitzea eta erabiltzea.
4. Klase-multzoak eta liburutegiak sortzea eta erabiltzea.
5. Herentziaren, superklasearen eta azpiklasearen kontzeptuak identifikatzea.
6. Klase eta metodoen herentzia blokeatzeko eta behartzeko aldatzaileak erabiltzea.
7. Eraikitzaileek herentzian duten eragina ezagutzea.
8. Superklasearen metodoen implementazioa gainidatziko duten klase heredatuak sortzea.
9. Klase-hierarkiak diseinatzea eta aplikatzea.
10. Klase-hierarkiak probatzea eta araztea.
11. Klase-hierarkiak implementatzen eta erabiltzen dituzten programak egitea.
12. Kodea iruzkintzea eta dokumentatzea.

EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Klase heredatuak definitzea eta erabiltzea. • Interfazeak definitzea eta erabiltzea. • Klase-liburutegiak sortzea eta erabiltzea. • Herentziaren, superklasearen eta azpiklasearen kontzeptuak identifikatzea. • Klaseetarako eta metodoetarako sarbide-kontrolako aldatzaileak erabiltzea. • Superklasearen metodoak gainidatziko dituzten klase heredatuak implementatzea. • Klase-hierarkiak diseinatzea eta aplikatzea. • Klase-hierarkiak probatzea eta araztea. • Klase-hierarkiak implementatzen eta erabiltzen dituzten programak diseinatzea. • Kodearen iruzkinak sartzea eta dokumentatzea. 				X X X				X X X X X X	

					<p>Azalpen hori osatzeko, ereduzko klase baten implementazioa urratsez urrats garatuko du.</p> <p>Ondoren, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dute implementazio hori.</p>		
J2. Paketearen kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	4	1 h	X		<p>Irakasleak, adibideen bitartez, paketearen kontzeptua azalduko du. Gero, lengoaiak eskaintzen dituen klaseek paketeetan izango duten antolamendu hierarkikoa azalduko du, grafikoki.</p>	Aplikazio baten garapenean, pakete kontzeptua ezagutzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J3. Pakete bat sortzeko mekanismoei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	4	1,5 h	X	X	<p>Irakasleak urratsez urrats eta adibide baten bidez, pakete bat sortuko du, implementaziotik hasita, konpilazio eta exekuzioraino. Horretarako IDEa eta kotsola erabiliko du.</p> <p>Ondoren, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dute implementazio hori.</p>	Paketeak sortzeko eta erabiltzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J4. Herentziaren kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	1,5	1 h	X		<p>Irakasleak herentzia kontzeptua azalduko du. Eginkizun horretan, superklaseen eta azpiklaseen arteko hierarkia islatuko duten adibide grafikoak erabiliko ditu.</p>	Herentzia kontzeptua ezagutzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J5. Klase eta metodo abstraktuen kontzeptuei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,6	1 h	X	X	<p>Irakasleak, azalpenari hasiera emateko, klase eta metodo abstraktuen ezaugarriak erakutsiko ditu.</p>	Klase eta metodo abstraktuak diseinatzeko eta erabiltzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>

					<p>Ondoren, kodeen adibideen bitartez, klase eta metodo abstraktuak definitzeko eta erabiltzeko tresnak azalduko ditu.</p> <p>Azkenik, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dituzte aztertutako adibideak.</p>		
J6. Klase eta metodo finalen kontzeptuen azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,6	1 h	X	X	<p>Irakasleak klase eta metodo finalen ezaugarriak azalduko ditu.</p> <p>Gero, kode-adibideen bitartez, klase eta metodo finalak definitzeko eta erabiltzeko tresnak azalduko ditu. Amaitzeko, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzitu beharko dituzte.</p>	Klase eta metodo finalak diseinatzeko eta erabiltzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J7. Azpiklase bat definitzeko tresnei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,5,6	2 h	X	X	<p>Irakasleak, aurrez definitutako superklase bat abiapuntu izanik, azpiklase bat definitzeko beharrezko sintaxia azalduko du.</p> <p>Azalpen horretarako, azpiklaseak definitzeko adibideak emango ditu, eta ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzitu beharko dituzte.</p>	Azpiklasea diseinatzeko eta inplementatzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J8. Azpiklaseetako kideetarako sarrera kontrolatzeko mekanismoen azalpenak eman.	1,5,6	1 h	X		<p>Irakasleak azpiklaseko kideetarako sarrera kontrolatzeko mekanismoak azalduko ditu, eta, taula baten bitartez, sarrera-bitartekoak adieraziko ditu: pribatua, aurrez zehaztua, babestua eta publikoa. Bestalde, kide</p>	Azpiklaseetako kideetarako sarrera kontrolatzeko tresnak ezagutzeko eta aplikatzeko.	<p>Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>



					horietara nondik sar daitekeen argituko du.		
J9. Superklaseko metodoak berriro definitzeko tresnei buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	8	2 h	X	X	Irakasleak superklaseko metodoak berriro definitzeko beharrezko sintaxia azalduko du. Gero, superklase bateko metodoak berriro definitzeko adibideak eta metodo horietara sartzeko mekanismoen adibideak emango ditu. Ondoren, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dute inplementazio hori.	Superklase bateko metodoak birdefinitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J10. Azpiklaseen eraikitzaileak definitzeko tresnen azalpenak eman eta erakustaldia egin.	7	2 h	X	X	Irakasleak eraikitzaileak azpiklase bateko objektuen sorreran duten portaera erakutsiko du. Gero, azpiklase baten eraikitzaileak definitzeko beharrezko sintaxia azalduko du. Ondoren, parametro kopuru desberdineko azpiklase baterako eraikitzaileen definizioen adibideak emango ditu. Azkenik, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dute inplementazio hori.	Azpiklase baten eraikitzaileak diseinatzeko eta inplementatzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J11. Azpiklaseen suntsitzaileak definitzeko tresnei buruzko azalpenak	8	1,5 h	X	X	Irakasleak azpiklase bateko objektuak amaitzeko suntsitzaileak duten	Azpiklase baten suntsitzaileak diseinatzeko eta inplementatzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala.




eman eta erakustaldia egin.					<p>portaera erakutsiko du.</p> <p>Gero, azpiklase baten suntsitzaileak definitzeko beharrezko sintaxia azalduko du.</p> <p>Azalpen horretarako, azpiklase baten suntsitzaileak definitzeko adibideak emango ditu, eta ikasleek haien ekipamenduetan erreproduzitu beharko dituzte.</p>		<p>Apunteak.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J12. Klaseen hierarkiaren kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	1,9,10	2 h	X		<p>Irakasleak, zuhaitz-egituraren bidez, grafikoki erakutsiko ditu aurreko jardueretan aztertutako adibideetan definitutako klaseen hierarkiak – adibide horietan, azpiklaseek definituta egon beharko dute–.</p> <p>Ondoren, aurrez definitutako beste azpiklase batzuetako azpiklaseak definitzen jarraitzeko aukera azalduko du.</p> <p>Azalpen hori, bestalde, klaseen egitura hierarkikoa implementatuko duen aplikazio baten kodearen analisiaren bidez egingo du.</p>	<p>Superklaseak eta azpiklaseak dituen aplikazio baten barruko hierarkia ezagutzeko.</p>	<p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Apunteak.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J13-E1. Klaseen egitura hierarkikoa implementatuko duen aplikazio bat sortzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,2,4,5,6,7,8,9,10,11,12	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, klaseen egitura hierarkikoa definitu eta erabili behar duen aplikazio bat diseinatzeko eta, ondoren, implementatzeko ariketa praktikoa egingo dute.</p>	<p>Klaseen egitura hierarkikoak deklaratzeko eta erabiltzeko dituzten aplikazioak implementatzeko.</p>	<p>Ariketa praktikokoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p> <p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p>



					<p>Era berean, sortutako kodea iruzkindu eta dokumentatu beharko dute.</p> <p>Ariketa amaitutakoan, ikasle bakoitzak, proiektagailua erabiliz, bere soluzioa azalduko du; taldeko gainerako ikasleek aztertu egingo dute, eta oharrak egingo dizkiote.</p>		
J14. Polimorfismoaren kontzeptuari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1,8	2 h	X	X	<p>Irakasleak, hasteko, objektuei orientatutako programazioaren araberako polimorfismo kontzeptuaren ezaugarriak azalduko ditu.</p> <p>Gero, lengoaiak superklaseko eta azpiklaseko metodoen definizioan portaera polimorfiko hori lortzeko eskaintzen dituen tresnak azalduko ditu.</p> <p>Horretarako, superklasean definitzen diren eta, gero, azpiklaseetan birdefinitzen diren metodoen portaera polimorfikoa erakutsiko duen aplikazio baten kodea aztertuko du.</p>	Metodoen diseinuan, polimorfismoa ezagutzeko eta aplikatzeko.	<p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p> <p>Apunteak.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p>
J15-E2. Polimorfismo kontzeptua aplikatzeko ariketa praktikoa autonomoa egin.	1,2,4,5,6,7,8,9,10,11,12	2 h		X	<p>Ikasleek, banaka, superklase baten metodoak diseinatzean eta, ondoren, azpiklasean birdefinitzean, polimorfismo kontzeptua aplikatu behar duen aplikazioa diseinatu eta, gero, inplementatzeko ariketa praktikoa egin beharko dute.</p> <p>Era berean, sortutako kodea iruzkindu eta dokumentatu beharko dute.</p>	Metodoen diseinuan, polimorfismo kontzeptua erabiltzen duten aplikazioak garatzeko.	<p>Ariketa praktikoa enuntziatua biltzen duen dokumentua.</p> <p>IDE batez hornitutako ordenagailua.</p> <p>Proiektagailua.</p> <p>Arbel digitala.</p>



					Ariketa amaitutakoan, ikasle bakoitzak, proiektagailua erabiliz, bere soluzioa azalduko du; taldeko gainerako ikasleek aztertu egingo dute, eta oharrak egingo dizkiote.		
J16. Interfazearen kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	3	1 h	X		Irakasleak, adibideen bidez, interfazearen kontzeptua azalduko du. Gero, interfaze bat definitzeko beharrezko sintaxia azalduko du.	Interfazearen kontzeptua ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J17-E3. Interfazea diseinatzeko eta inplementatzeko ariketa praktiko gidatua egin.	3,12	2 h	X	X	Irakasleak, adibide baten bitartez, aplikazio baten barruan interfaze bat diseinatzeko eta, gero, inplementatzeko modua azalduko du. Gero, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzitzeko dute inplementazioa.	Interfazea diseinatzeko eta inplementatzeko.	Ariketa praktikoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J18-E4. Interfazea erabiltzeko ariketa praktiko gidatua egin.	3,12	2 h	X	X	Irakasleak aurreko jardueran garatutako aplikazioaren inplementazioarekin jarraituko du, eta aurrez diseinatutako interfazea erabiltzeko beharrezko kodea gaineratuko du.	Klaseak komunikatzeko, interfazea erabiltzeko.	Ariketa praktikoaren enuntziatua biltzen duen dokumentua. IDE batez hornitutako ordenagailua. Proiektagailua. Arbel digitala.
J19. Erreparasatu eta zalantzak argitu.	Guztiak	45 min	X	X	Taldean, unitate didaktikoaren edukiak erreparasatuko dituzte. Irakasleak zalantzak argituko ditu, eta arbelean eskema bat osatuko du.	Erreparasatzeko eta zalantzak argitzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. IDE batez hornitutako ordenagailua.
E5. Ebaluazio-proba espezifikoa egin.	Guztiak	3 h		X	Ikasle bakoitzak proba bat egingo du, idatziz edota ordenagailuan; bertan, unitate didaktikoan azalduko	Ikasleek unitate didaktikoan landutako edukiak zein mailatan bereganatu dituzten jakiteko.	IDE batez hornitutako ordenagailua. Azterketa idatziaren gidoia.



					edukiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko die. Proba bakoitzak ordu eta erdiko (1,5 h) iraupena izango du –errekuperazio-azterketarako beharko litzatekeen denbora barne–.		
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none">J13-E1 jarduera garatzean, ikasleek klaseen egitura hierarkikoa inplementatuko duen aplikazioa garatu beharko dute. Irakasleak gidatu egin beharko ditu ikasleak ondoren garatu beharreko klaseen eta azpiklaseen zuhaitz-egituraren diseinu grafikoa egiteko lanetan.							



7. unitate didaktikoa: KLASE GENERIKOAK ETA SALBUESPENEN KONTROLA

Iraupena: 25 ordu


IE3: Kodea idatzi eta arazten du, eta, eginkizun horretan, lengoaiaren kontrol-egiturak aztertu eta erabiltzen ditu.

IE6: Informazioa manipulatu duten programak idazten ditu, eta, eginkizun horretan, datu mota aurreratuak hautatu eta erabiltzen ditu.

Ikaskuntza-helburuak:

1. Kodea idaztea, salbuespenen kontrola erabiliz.
2. Klase eta metodo generikoak sortzea.
3. Testu-kateetan patroiak bilatzeko, adierazpen erregularrak erabiltzea.
4. XML dokumentuen tratamenduarekin lotzen diren klaseak identifikatzea.
5. XML dokumentuen gainean manipulazioak egiten dituzten programak egitea.

EDUKIAK					Multzoak											
					1	2	3	4	5	6	7	8	9			
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kodea diseinatzea, salbuespen-kontrola erabiliz. • Klase eta metodo generikoak sortzea. • XML dokumentuen tratamenduarekin lotzen diren klaseak identifikatzea. • XML dokumentuen gainean manipulazioak egiten dituzten programak inplementatzea. 						X				X	X	X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Salbuespen-kontrola. • Klase generikoaren kontzeptua. • Metodo generikoaren kontzeptua. 						X				X	X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ekimena izatea programen diseinuari ekarpenak egitean. • Programak probatzeko eta arazteko fasea balioztatzea. • Ideiak ekartzeko ekimena izatea, taldearekin lankidetzan jardutea eta komunikazioan errespetuz jokatzeko. 						X				X	X				
JARDUERA			METODOLOGIA						BALIABIDEAK							
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da									
			Irak.	Ik.												
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.		15	X	X	Irakasleak unitate didaktikoaren	Gaia aurkezteko eta ikasleak gaiaren	Proiektagailua.									



		min			ikaskuntza-helburuak eta atalak aurkeztuko ditu.	aurrean jarrera egokia hartzera bultzatzeko.	Gaiaren aurkibidea.
J1. Salbuespen kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	1	1 h	X		Irakasleak aplikazio baten barruan egoera anomaloak edo salbuespenak maneiatzearen beharra azalduko du. Ondoren, ager daitezkeen salbuespenak azalduko ditu, baita lengoaiak salbuespen horiek maneiatzeko eskaintzen dituen klaseak ere.	Aplikazio batean salbuespenak erabiltzearen beharraz jabetzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J2. Salbuespenak maneiatzeari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1	1 h	X	X	Irakasleak, adibideen bitartez, aplikazio baten barruan salbuespenak abiarazteko eta hartzeko mekanismoak azalduko ditu. Ondoren, ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzituko dituzte adibide horiek.	Aplikazio baten barruan salbuespenak kontrolatzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.
J3. Salbuespenen sorrerari buruzko azalpenak eman eta erakustaldia egin.	1	2 h	X	X	Irakasleak erabiltzaileek beren salbuespenak sortzearen beharra azalduko du. Ondoren, salbuespen bat sortzeko eta maneiatzeko beharrezko sintaxia azalduko du. Gero, salbuespenak deklaratu eta maneiatuko dituzten metodoak dituen klase bat diseinatu eta implementatuko du. Ikasleek beren ekipamenduetan erreproduzitu beharko dituzte	Salbuespenak diseinatzeko eta implementatzeko tresnak ezagutzeko.	Proiektagailua. Arbel digitala. Apunteak. IDE batez hornitutako ordenagailua.

